

## ESALDIAK

### 1.- Deskribapena

Esaldi batzuk irakurtzen dira eta jokalariek haiekin ados dauden ala ez erabaki behar dute.

### 2.- Helburuak

- Hainbat egoera sozialetan harreman orekatuak eta solidarioak izatea, beste pertsonak errespetatzen dituztenak.
- Pertsonen arteko bizikidetasuna zuzentzen duten oinarrizko baloreen garrantzia ikustea eta haien arabera jokatzeko.
- Haurrek beren inguruko indarkeria antzemateko eta saihesteko behar diren jarrerak eta gaitasunak garatzea.

### 3.- Partaideak

10 urtetik aurrerako talde bat.

### 4.- Materiala

Kartoi meheak, boligrafoa.

### 5.- Abiapuntuko arauak

Gelako oztopo guztiak kenduko ditugu, haurrak eragozpenik gabe mugitu daitezuten. Gelako lau izkinatan kartoi mehe bana jarriko dugu; kartoi bakoitzean adierazpen hauetako bat azalduko da:

- guztiz ados
- ados
- kontra
- guztiz kontra.

### 6.- Garapena

Jokalaria guztiak gelaren erdian jarriko dira.

Esaldiak kartoi mehe batean idatz ditzakegu.

Minutu erdiz, haurrek esaldi bakoitzari buruzko gogoeta egingo dute; jarraian, aukeratutako erantzuna dagoen izkinara joango dira. Inor ezingo da gela erdian edo bi jarreraren artean geratu. Dagokion izkinara joan ondoren, haurrek beren erantzunak arrazoitu eta eztabaidatuko dituzte.

### 7.- Ebaluazioa

Nola sentitu zarete? Arrazoiak ematerakoan txandak errespetatu al dituzue? Gauza askotan bat etorri al zarete? Zuen iritzia defendatu al dituzue? Besteen iritzia entzun al dituzue?

### 8.-Iturria

Orri honen moldaketa:

<http://www.sterm.org/Ensenanza/Mujer/tutoria.doc> -

## Eranskina

- Emakumeak ahulak dira, eta horregatik gizon baten babesa behar dute.
- Gizon batek ez du janaria prestatu edo haurrak zaintzeko beharrik, hori emakumeen lana da.
- Pertsona guztiek eskubide berdinak eduki behar dituzte.
- Neskak ez dira zuhaitzetara igo behar, hori mari-mutilek egiten dute.
- Gizonek ez dute inoiz negar egin behar.
- Gizonek eta emakumeek etxeko lanak banatu behar dituzte.
- Emakumeek ez dute etxetik kanpo lan egin behar.
- Emakumeek ez dute kirol guztietarako balio.
- Emakume bat ezin da igeltseroa izan.